

ZIUR ZAUDE ZURE LAGUNAK BENETAN HEZURREZ EGINAK DAUDELA?

Bazen behin, 8 urteko neska bat Mia izenekoa. Mendien arteko herrixka lasai batean bizi zen bere familiarekin. Ipuineko protagonista pailazo bat bezain alaia zen eta lehoia baino ausartagoa.

Goizean goiz egunkaria hartzera joan zen etxeko atera, egunkari banatzaileak bizikletaz etxera ekartzen ziolako eta ondorengo berria irakurri zuen: *93 urte itxirik zeraman Bizi Alai kanpamendua irekiko dute uda honetan. 7 urtetik aurrerako neska-mutilak etor daitezke. Apuntatzeko zoazte herriko udaletxera.*

Miak amari esan zion Bizi Alai kanpamentura joan nahi zuela eta amak baietz esan zion.

Uda iritsi zenean Mia kanpamentuko autobusera igo zen. Mutil baten ondoan eseri zen. Mutiko horrek Mikel zuen izena baina Myko deitzen omen zioten. Berehala lagun handiak egin ziren eta logelan elkarrekin jarriko zirela adostu zuten.

Kanpamentura iritsi zirenean, lehenengo libre utzi zieten ingurua ikusteko. Gure protagonistek mendira joatea erabaki zuten. Mendian barrena Tutankamon baino zaharragoa ematen zuen gizon batekin aurkitu ziren. Gizonak esan zuen:

- Kontuz leku honekin! Duela 93 urte zuek bezala Bizi Alai kanpamenduan zegoen mutil bat mendira etorri zen eta ez dut inork berriro ikusi. Horregatik itxi zuten kanpamentua. Esaten da mutil hori mamu bihurtu zela eta eskarmentua eman nahi duela.

Gure neska-mutilek ez zioten kasurik egin eta aurrera jarraitu zuten.

Beranduago, Miak Mykori harriturik galdetu zion:

- Zergatik esan ote digu hori?
- Ez dakit baina ez egin kasu handirik. - erantzun zion Mykok.
- Beno baina nik hau deskubritu nahi dut. Mamu bat badago guk aurkituko dugu.

Bazkalostean, oilarra baino tenteago zen neska batek Miari burla egin zion ilea azenarioaren kolorekoa zuelako. Errelebo lasterketak egiten ari ziren momentu horretan eta neska harroa irabazten ari zen. Baina bat-batean, ikusten ez zen zerbaitekin estropezu egin eta putzu batera erori zen. Oihuka esan zuen eta arropa aldatzera joan behar izan zuen.

Afaltzeko orduan Miak Mykori esan zion:

- Ez dakizu zer gertatu den erreleboetan! Ze pena ez zeundela! Nereak burla egin dit eta gero erreleboetan irabazten ari zela ez zen ezer ikusten eta bat-batean estropezu egin eta putzu batera erori da! Ziur nago mamua izan dela, eskarmentu bat eman nahi ziola.
- Bai zera, Mia! Mamuak ez dira existitzen, bakarrik ipuinetan agertzen dira.

Hurrengo egunean Mia gosaldu baino lehen paseo bat ematen ari zenean bat-batean galdu zen. Ibiltzen hasi zen eta lurrean bere muturren aurrean

iparrorratz bat aurkitu zuen. Ze zortea! Baina pentsatu zuen: "Nola egon ahal daiteke hau hemen ni lehen hemendik pasatu banaiz eta ez bazegoen? Ziur mamuak lagundu nauela." Ondoren, Mykori gertatutakoa kontatu zion eta Mykok ideia burutik kendu zion.

Baina Mia tematurik zegoen, bazekien mamuren bat egonen zela eta arratsaldean plan bat prestatu zuen: gauean mendira joango zen eta mamua aurkitzen saiatuko zen. Ez zion Mykori kontatu, bestela Mykok ez baitzion joaten utziko.

Gaua iritsi zenean, linterna, soka, ura eta janaria hartu eta mendira abiatu zen. Buelbaka zebilela txirrista moduko batetik erori zen eta bi bidetxo aurkitu zituen: batean alfonbra moduko bat zegoen eta bestea hutsik zegoen. Berak alfonbra zegoen bidexkatik joatea pentsatu zuen erakargarriagoa zirudielako. Alfonbra zapaltzean arroka bat ireki zen eta kobazulo bat zen, bizileku bat zirudien! Barruan zegoen hotza hezurretaraino iristen zen, eta bertan janaria zuen mahaitxo bat zegoen. Bat-batean, koadro zahar bat ikusi zuen. Familia bat agertzen zen, gurasoak eta ume bat agertzen zirelarik. Goiko partean 1930eko uztailak 16 jartzen zuen, eta antzinako arrokekin jantzita zeuden. Dudarik gabe umea ezaguna egin zitzaion: Myko zen!!!! Nola zen posible 1930 urtean Mykok 8 urte izatea eta orain ere?



Hori ikustean Mia zorabiatu sentitu zen, ez zuen ezer ulertzen! Baina buruari eraginez ratu bat egon ostean konturatu zuen zer gertatzen zen: Gizon zaharrak esan ziena egia zen! Mamua Myko zen!!!

Orduan kanpamentura joan zen ziztu bizian Myko logelan topatzeko eta zer gertatzen zen galdetzeko. Baina hor ez zegoen Myko, horren ordean ohar bat zegoen. Esaten zuen: "*Mia, nire familiarekin beste leku batera joan naiz azkenean nor naizen deskubritu behar zenuelako. Asko maite zaitut, benetako laguna zara. Mesedez ez kontatu inori mamu bat naizela eta disfrutatu kanpamenduaz*".

Zer egingo ote du Miak orain? Sekretua gordeko dio? Zer gertatzen den jakin nahi baduzu segi Bizi Alai kanpamendura eta Mia bezain ausarta bazara aurkitu kobazuloa.